

IKASLEEN TXOKOA 111. ZENBAKIA

# Lanbide heziketa

**ANIMAZIO SOZIOKULTURALA ETA TURISTIKOA****Egileak:**

*Goian zutik ezkerretik eskubira: Ander Argemi Rodríguez, Urko Azkue Oujo, María Martín Rodríguez, Aiora San Miguel Ibarzabal, Naiara Goikoetxea Rodríguez, Aiora Arrese Ayerbe, Azahara Sarasti Fernández, Andrea de los Santos Machado, Maider Díaz Martín, Ibrahim El Houas Gonzalez.*

*Behean makurtuta ezkerretik eskubira: Ekhi Martínez Zugasti, Erik Schiffo Caballero, Iara de Almeida Fagundes, Maier Iparrairre Baleztena, Maitane Garrido Sánchez, Carla Huici Cortadi.*





# «Apokalipsi zombi bat zirudien»

Nola bizi zuten balentziarrek DANA? eta nola ikusten dute boluntario gaur egungo egoera?

Balentzia eta DANA gaur egungo edozein elkarrizketa informalean aipatzen den gaia da. Azken urtean bizi degun tragedia handiena izan daiteke; desagertuaz, hildakoetaz, etxebizitza suntxituetaz betetako historiak aurki daitezke zoritxarrez balentzian. Elkarrizketa honen bidez, eguneratutako eta lehen eskuko historioak eta testigintzak partekatzea da helburu. Balentzian boluntario bezala lanak egin dituzten gazteekin eta DANAREN kaosa bizi izan duten balentziarrekin harremanetan jarri gara, beraien esperientziak kontatu ahal izateko.



## BOLUNTARIOEI—

### 1. Zein herrietara joan zineten?

**Laura eta Uxue** «Paiporta, Massanasa, Bennetusser»

**Angela** «Alfagar, Massanasa, Paiporta eta Bennetusser»

**Josu** «Algemesi.»

### 2. Telebistan erakusten dutena errealitatearekin bat dator?

**Laura eta Uxue** «Ez, telebistan modu batean apaintzen dute egoera; benetan gertatzen dena

eta gertatu dena askoz larriagoa da. Esaten da dena hobeto dagoela eta konpondu dela eta ez direla boluntarioak behar baina errealitatea ez da hori.»

**Angela** «Ez du zerikusirik gauza batek bestearekin.»

**Josu** «Ez, ez da egia, guztiz ezberdina da.»

### 3. Zein izan zen zuen lehenengo inpresioa behin han egonda?

**Laura eta Uxue:** «Apokalipsi zombia zirudien, polizia eta mi-

litarrez betea. Zenbat eta gehiago sartu herrietan, orduan eta hondatuago zegoen. Bestalde, jendea oso eskertuta zegoen, oso jende gutxi zegoen kalean lapurretengatik zerbait gertatuko ote zitzaien beldurrez...»

**Angela:** «Iritsi nintzenez, nire lehen inpresioa oso heavya izan zen, negarrari eman nion ezer egin ezinaren ezintasunagatik. Inor ez dagoelako hain gauza indartsuak ikusteko prest eta, azkenean, ikusteko prest ez gauden zerbait delako.»

**Josu:** «Burura etorri zitzaidan lehenengo hitza hondamendia izan zen, autoak txikituta, dena lokatzez beteta, bazirudien mundu gerra bat gertatu zela. Horrek guztiak oihas bat zirudien, ez zegoen araurik, GTAREN jokia batean egongo banintz bezela sentitu nuen.

Lehen aipatu dudana bezala, ez dago araurik, legerik gabeko hiri bat bezala, boluntariotza sustatzen da gehiena. Pena handia, lan handia... une hartan behar zen gauza bakarra alaitasuna zen.»

### 4. Zein momentu egin zitzaien gogorrena?

**Laura eta Uxue** «Bertako lagunek kontatutakoa: Beren auzoko parkean ume askok jolasten zuten egunero, eta dana gertatu zenean 10-11 urteko neska mutil batzuk zeduen jolasean olatu handi bat agertu zenean urrutetik. Pertsona gehienak noski, bereala atera ziren korrika, baina neska txiki bat mundu guztiari abixatzen geratu zen, eta zoritxarrez, olatuaren korronteak arrapatu zion. Gertu zeuden laguntzak soka batekin arrapatzea lortu zuten arren, korrontearen indarrak soka puskatu zuen 11 urteko neskatxa hori kalean bera emanaz. Bere familiak aurkitu zuen 4 egun desagertua egon ondoren.»

«Niri suiltzaileen, poliziaren zaratak asko eragin zidaten... eta jendeak egunero entzuten dute...» «Haurrei ez diete etxetik irteten uzten egoera ikus ez dezaten; orduan, bigarren cuarentena bezalakoa dela diote.» «Gure lagun batzuk jendearekin hizketan aritu ziren eta esaten dute gogorrena negar ez egitea dela, kaltetuek gertatu zitzaizen zerbait edo ikusi zuten zerbait kontatzen zutenean. Gozokiak banatzen eta denei irribarrea ateratzen ere aritu ziren. Guk, aldiz, ez dugu jendearekin asko elkarreragin, denbora gehiago eman dugu kalean eta eskulana behar zen eraikinak eta kaleak garbitzen eta txukuntzen»

**Angela** «Pff, egia esan, une guztiak oso gogorrak egin zitzaizkidan, baina gehien markatu ninduen, adineko bikote bat nigana etorri zenean izan zen,

negar batean eskerrak ematera etorri ziren egiten dugun guztiagatik, guri esker haiek janaria dutelako, linternak dituztelako, zernahi dutelako...»

**Josu** «Emakume baten etxera bazkaria ematera joan nintzenez egin zitzaidan unerik gogorrena, eta negarrez hasi zen esanez berak ezin zuela ekarpenik egin, ezin zuela lagundu, ebakuntza egin berri ziotelako eta protesi bat zeramalako. Eskerrak ematen zizkidan ematen ari nintzaion guztiagatik, negarrez besarkatzen ninduen bitartean.»

### 5. Gu orain hara joatera erabakiko bagenu, zein gomendio emango zeniguke? (materiala, lekua, garraioa...)

**Laura eta Uxue** «Higieneko gauzak, leungarria, botak... arropa garbitzeko, lokatzengatik ezin dutelako arropa garbitu... Garraioari dagokionez, herritik ibiltzen joan behar da, baino hiri bakoitzeko udaletxean, boluntario txartela bat hartu behar da gero autobus bat hartzeko. Eta gure gomendio da jendea hara joatera animatzea eta joaten jarraitzea laguntza asko behar dutelako, hau ez baita 2 eguneko gauza bat...»

**Angela** «Hara joateko garrantzitsua da mentalki oso prestatuta joatea eta burua altuan edukitzea edozein egoeraren aurrean. Materialari dagokionez, esango nizueke erratzak, lanbasa, espartzuak, kristalak garbitzeko tresnak, eskularruak, maskarak eta garbitzeko produktuak (lixiba, xaboia...) eramateko, orain beharrezkoena baita. Lekuari dagokionez, guztietan laguntza handia behar da, baina nik gomendatuko nizueke paiportara joatea, okerren dagoen horietako bat delako, eta garraioan oinarrituta, nik neuk gomendatuko nizueke autoz joatea, errazagoa baita sartzen edo aparkatzea eta hortik oinez joatea. Izan ere, kontaktu-leerroak blokeatu egiten dituzte.»

**Josu** «Hornidura asko daude, baina ez dago eskulanik eta antolaketarik eta orain gehien behar dena xaboia arropa, lixiba... eta garbitzeko materiala eta produktuak dira.»





## BERTAKOEI →

### 1. Non zeunden DANA iritsi zen momentuan?

**Paula** «Lanetik etxerakoan harrrapatu zidan. Bidean errekek gainezka egin zuen, gure zortez kotxe handia genuen eta ur korronteari aurre egin ahal izan genuen gertuko zubi altu bateraino, eta han geratu ginen egun hartako 18:00tatik hurrengo eguneko 8:00rak arte. Denbora asko pasa genuen kotxean sartuta geure burua babesteko, baina mutiko bat laguntza eske ikusi genuenean bere furgonetatik, ezin izan genuen geldik egon eta bere laguntzan atera eta gure kotxean sartu genuen. Horren ondoren, jende gehiagori laguntzera ausartu ginen. Ur korrontea oso gogorra zenez ezin izan ginen zuzenean uretara sartu, ziurrenik kalean bera emango zigun eta. Ondorioz, soken bidez egin genuen lan, baina batzuetan ez zen nahikoa. Adibidez, gizon heldu bat ezin genuen atera, gaixoa oso beldurtuta zegoenez shock-ean sartu zen. Mutiko bati esker lortu genuen ateratzea, bestela ez dakit zer gertatu izango zen. Gertu zegoen jende guztia segurtasunean jarri ondoren amari deitu

nion furgonetako mutikoaren mugikorrarenkin, bera baitzen kobertura zekan pertsona bakarra, oso momentu tentsoa izan zen. Ez genekien aterako gifien ala ez handik, urez inguraturta geuden eta ez genekien nola amaituko zen tragedia hori»

**Lander** «Alarmak jo zuenerako, dena urpetuta zegoen. Momentu horretan lagun bati deitu nion ea ondo zegoen jakiteko, bere herriko zubia erori zelako uraren ondorioz. Ea zer moduz zegoen galdetun nion mezuz, baina ez nuen erantzunik jaso. Ondorioz, amankomunean ditugun lagun batzuekin kontaktatu nuen, ea zerbait gertatu zitzaien galdezka baina inork ez zuen berari buruzko berririk eta desagertutzat ematen zutela esan zidaten. Dirudenez fabriketan zegoen lanean, ur guztia ikusitakoan ama etxera bidali zuen berak fabrikako atea eta lehioak isten zituen bitartean, baina zoritxarrez ur korrontek arrapatu zion. Hurrengo egunean, non zegoen ikertzen saiatu ginen, ez genuen aurkitu eta esaten zen gauza bakarra non zegoen ez zekiela zen, gurasoek azkenean aurkitu zuten eta ordurako hilda zegoen. Hurrengo egunean bere herrira joan nintzen garbitzera eta bere gertu-

koekin hitz egitera, eta desastre hutsa zen, dena lokatzez beteta zegoen eta altzari eta kotxe guztiak kalean botata. Ez zegoen ez poliziarik ez militarrik kalean, baina politena izan zen ikustea nola komunitate ezberdinetako jendea inplikatu ziren kalea garbitzen laguntzera, Oso gogorra izaten ari da eta kosta egiten ari zaigu asimilatzea, izan ere, momentu batetik bestera izan zen eta egun batetik bestera etxebizitzak, lanak eta familiaratekoak galdu dira.

### 2. Ze laguntza ikusten dituzu beharrezkoak (psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa..)?

**Lander** «Gauza askotarako laguntza behar dugu, ekonomikoa adibidez, jendeak ez du baliabiderik dena galdu dutelako. Laguntza fisikoa ere ondo etorriko litziguke, errazagoa izango baita garbitzea eta autoak, altzariak eta kaleko beste gauzak mugitzea, makinak, palak eta tresnak dituzten pertsonen laguntzaz. Gainera, jende gehiagok laguntzen badu, errazagoa izango da dena konpontzea. Psikologikoki ere laguntza behar da, orain hasiko direlako gertatutakoa benetan asimilatzen, badaude asko dena galdu dutenak eta erabat hondatuta daudenak,

honek denak psikologikoki eragin handia izango eta izan du.»

### 3. Zein uste duzu dagoela gehien laguntzen, erakundeak edo boluntarioak?

**Lander** «Zalantzarik gabe gehien laguntzen hari direnak boluntarioak dira, laguntza guztietan parte hartzen ari dira behar duten adinekoei, jendea kotxeetatik ateratzen... Jendeak oso haserre daude erakundeekin laguntza faltengatik, eta erakunde asko laguntzen saiatu diren arren, beraien onurako izan da, baina berez behar zen laguntza ez zen iristen, edo bidetik geratzen zen, hala nola, gurutze gorria... Eta gobernutik iritsi behar ziren laguntzak, asteartean iritsi beharrean, ostiralean iritsi ziren.»

### 4. Nolakoa da gaur egungo egoera?

**Lander** «Egoera hobetu egin da, baina kaosa komunitate osoan dago oraindik. Ez da kaleko zinkinkeria guztia garbitzaz amaitzen, eta laguntzeko langile asko falta dira. Jendeak nazkatuta jarraitzen du, baina, hala ere, egunez egun borrokan, hobekuntza bat dagoela ikusten da. Dagoeneko 120.000 auto daude kalean pilotuta, eta azkenean zakarron-

tzira joango dira. Dendak eta etxeak gehiegizkoak dira, 80.000 eta 100.000 suntsitu daude momentuz... Herri askok hasieratik hasi behar dute baliabide eta laguntza faltagatik, dena galdu dute eta ezin dute aurrera egin.»

### 5. Uholdeak pasa ondoren, zer neurriak hartu zenituzten zure etxean?

**Lander** «Nire etxera berez ez zen iritsi baina bomba antzeko bat jarri genuen, bomba hori aktibatzean, hortik sartzen den ura guztia kanpora ateratzen da.»

**Egilearen izen abizenak** → Maria Martin Rodriguez, Ander Argemi Rodriguez, Ekhi Martinez Zugasti, Azahara Sarasti Fernandez, Maider Diaz Martin, Iara De Almeida Fagundes, Urko Azkue Oujo

**Boluntarioak** → Laura Monis, Uxue Bengoechea, Angela Fernandez eta Josu Fernandez  
**Balentziarrak** → Lander Hernandez eta Paula Martinez  
**Maila eta Kurtsoa** → Animazio Soziokultural eta Turistikoko Goi mailako ikasleak (2. maila)



# Eragin mentalak gazteetan

Ba al dakizu gazteen artean suizidioen kasuak nondik datozen?

Gaur egun, gazteen artean suizidioa da 15 eta 29 urte bitartekoen kausa nagusietako bat. Baina zerk bultzatzen ditu hortara? Zer egiten du gaizki gizarteak? Zer egin dezakegu guk horren aurrean?

Osasun mentala gai oso garrantzitsu bat ari da bihurtzen, izan ere, gaur egungo gizartearen gutxinaka onartzen ari den gaia da, baina oraindik tabuak itzali eta laguntza nahiz espazio seguru bat eskaintzen saiatu behar gara.

Datuak aztertzen baditugu, 30 urtetik beheragoko 310 pertsonen beren buruaz beste egin dute azken urteetan, hau da, %7,77ak. Arrazoiak aztertuz gero, arazo psikologikoak nabarmen-tzen dira, baina gazteetan bereziki bullying, ziberbullying eta sextingaren eraginez ematen dira suizidio kasu gehienak. Beraz, suizidioen ehuneko altuena, arazo emozionalei lotuta dago. Hala nola, antsietatea, autoestimua baxua, autolesioak, abusuak, alkohola, tabakoa, droga ilegala, beldurrak... Dakigun bezala, gaztaroan etengabeko aldaketak ematen dira eta bizitzako etapa zaila izaten da askorentzat. Gainera, gazteak mundu aldakor batean bizi dira. Hori dela eta, gizarteak gertakizunak erronkak edo oztopo ugari ekarri ditu osasun psikologikoan eraginez eta beraz, beharrezko lanketa bat suposatuz.

Esaterako, teknologiak okerrera asko eragin arren, kausa nagusia sare sozialengandik eratorria izan da. Alde batetik, sare sozialek gazteei aukera ematen diete lagunak egiteko, ideia be-

riak ezagutzeko eta norberaren identitatea osatzeko. Horrek elkarrizketa eta informazioaren trukea bultzatzea ahalbidetzen du, eta baita gazteek eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten tresna praktiko eta interaktiboak eskaintzen ere. Hala ere, sare sozialen eragina konplexua da, eta askotan ondorio negatiboak ere sortzen ditu, hala nola, mendekotasuna edota ziberbullyinga.

Gazteek maiz sentitzen dute sare sozialetan parte hartzeak presio handia ekartzen duela, irudi fisikoaren edo bizitza pertsonalaren erakustaldiaren gaineko kezka direla medio. Gainera, maiz agertzen diren eduki «idealizatuak», goi mailako bizitzaren irudikapenak, gazteek beren bizitzaren benetako irudiarekin konparatzerakoan depresioa edo antsietatea sor ditzake. Beharrezkoa da gazteen artean jakituraren sentsibilizazio handiagoa sortzea, sare sozialetako irudi perfektuen atzean dauden arazoak ikusteko.

Bestalde, teknologian oinarritutako eta gazteentzako diseinatutako aplikazioak eta tresnak izan daitezke baliabide positiboak. Adibidez, mindfulness teknikak edo osasun mentalari buruzko aplikazio interaktiboak gazteek beren emozioak kudeatzeko tresnak eskuratu ahal izatea ahalbidetzen dute. Hala ere, teknologiaren erabilera egokia sustatzea eta gazteen autonomia eta autoestimua lantzea ezinbestekoa da.

Teknologiaz gain, presio akademikoak, estresak eta etorkizunaren beldurrak eragin handia daukate gazteen suizidioetan.

Bizi duten presio akademikoak eta etorkizunari lotutako beldurrek gero eta kezkarriagoak bihurtzen dituzte osasun psikologikoa kaltetzen duten faktoreak. Gaur egun, gazte askok helburu akademiko altuak

lortu behar izaten dituzte: unibertsitate sartzeko, hautatutako ikasketetan arrakasta izatea, etorkizunean lanpostu egonkor bat izatea eta, azken finean, bizimodu material eta sozial bat lortzea. Horrek gazteengan estres handia sortzen du, eta maiz ondorio larriak ditu: antsietatea, depresioa eta, kasu batzuetan, ekintza arriskutsuak.

Egungo gazteek beren etorkizuna nolabait egonkortu nahi dute, baina askotan hori lortzeko beharrezkoa den laguntza eta baliabideak falta zaizkie. Hainbat azterketek adierazten dutenez, gazteek, oro har, inguruko laguntza psikologikorik ez izateak, estresa areagotzen du, eta horrek gazteek behar duten laguntza eta orientazioa ez aurkitzea eramaten du. Horregatik, garrantzitsua da gizarteak eta administrazioek gazteen osasun mentalaren inguruko baliabideak zabaltzea, hala nola, ikasketetan arrakasta lortzen lagunduko behar, baizik eta emozioen kudeaketa, autosufizientzia, eta arazoaren aurrean jarrera positiboak eta osasuntsuak garatzen lagundu behar ditu. Eskola eta unibertsitateetako psikohezkuntza-programak, talde-lana, emozioen adierazpena eta elkarrizketa sustatzen dituzten ekimenak ezinbestekoak dira gazteek euren osasun mentala lantzeko.

Alde batetik, gazteek ikasi behar dute sentimenduak nola kudeatu eta zer egiten duten emozioek euren eguneroko bizitzan. Horrela, lehenengo urratsa emango da osasun mentalaren inguruko sentsibilizazioan eta gazteek behar duten laguntza eskuratzeko aukera izateko.

Baliabide psikologikoak eskasak dira gure gizarteetan. Osasun publikoan ez dago arreta nahikoa eta horrek pribatizazioa dakar. Baita ere, dirua dutenek soilik onartu dezakete osa-

isolamendu soziala eta norbere burua ezagutzeko zailtasunak sor ditzake. Horrekin batera, askotariko faktore sozialek, hala nola familia-gatazkek, lagun arteko errespetu falta, bullying-ak edo ziberbullying-ak, gazteengan osasun psikologikoak okertu ditzaketen arrisku handiak ekar ditzakete.

Bestalde, familia eta lagunak, aldi berean, gazteentzako babes leku nagusia izan daitezke. Babes horri esker, emozioen kudeaketa eta komunikazio osasuntsua sustatuko da. Horrek, gizartearen osasun mentala lehenestea eta normalizatzea dakar, gazteei laguntzeko ingurune seguru bat sortzen lagunduz. Hori dela eta, familia eta lagun-taldeek funtsezko papera dute gazteen emozioen kudeaketan eta beren egoera psikosozialaren hobekuntzan.

Osasun Mentala Eskola eta Komunitatean Integratzea behar beharrezkoa da. Eskola eta hezkuntza-komunitateak funtsezko eremuak dira gazteen osasun mentala lantzeko. Hezkuntza-sistemak gazteak ez dira bakarrik ikasketetan arrakasta lortzen lagunduko behar, baizik eta emozioen kudeaketa, autosufizientzia, eta arazoaren aurrean jarrera positiboak eta osasuntsuak garatzen lagundu behar ditu. Eskola eta unibertsitateetako psikohezkuntza-programak, talde-lana, emozioen adierazpena eta elkarrizketa sustatzen dituzten ekimenak ezinbestekoak dira gazteek euren osasun mentala lantzeko.

Alde batetik, gazteek ikasi behar dute sentimenduak nola kudeatu eta zer egiten duten emozioek euren eguneroko bizitzan. Horrela, lehenengo urratsa emango da osasun mentalaren inguruko sentsibilizazioan eta gazteek behar duten laguntza eskuratzeko aukera izateko.

Baliabide psikologikoak eskasak dira gure gizarteetan. Osasun publikoan ez dago arreta nahikoa eta horrek pribatizazioa dakar. Baita ere, dirua dutenek soilik onartu dezakete osa-

sun mentalari buruzko zaintza bat izatea eta gizartearen zaiti handi bat arreta hau gabe gertatzea. Bestalde, prebentzioa behar beharrezkoa da, gazteen osasun mentala lantzeko eta prebentziarako baliabideak areagotu egin behar dira. Hala nola, psikologo eta psikiatraren arreta, eskolako aholkularitzako zerbitzuak, eta gazteentzako telefono-lainoa edo sare interaktiboak laguntzeko tresna baliotsuak izan daitezke. Hala ere, baliabide horiek ez dira nahikoak izan behar. Gizartearen eskubide bat izan behar du gazteak bere osasun mentala zaintzeko eta behar den arreta jasotzeko, horretarako, gobernuak eta erakundeek baliabide gehiago eskaini behar dituzte eta osasun mentala lehenetsi behar da politika publikoetan.

Gazteen osasun mentala guztiz integratuta egon behar da gizartearen ongizatean, eta ez izan behar bereziki, eskubide baztertzailer bat. Gazteek aukera izan behar dute, lehenbailehen, euren emozioak eta osasun psikologikoa zaintzeko, eta horretarako, gizarteak baliabide eta laguntza egonkorra eskaintzea ezinbestekoa da. Osasun mentala ez da ingurune batean edo bestean egindako apustua; gure etorkizunaren osasunaren adierazle argia da.

Hori dela eta, gizartearen aldetik konpromiso sendo bat behar da, gazteen ongizatea eta osasun mentala lehenestea, ez bakarrik osasun publikoaren ikuspegitik, baizik eta gazteen identitatearen eta garapen osasuntsuaren ikuspegitik ere. Gazteek behar dute babesa, esperantza eta aukerak, eta horretarako, gure gizarteak egonkor-tu eta zaindu egin behar ditu. Gizarteak dugun betebeharrak da gure gazteak zaintzea, hauek izango baitira gure etorkizuna.

*Egileak: Aiora Arrese, Maitane Garrido, Naiara Goikoetxea, Andrea Machado, Aiora San Miguel eta Erik Schiffo*

## Aitor Fraga: Etorkizunaren zaindari gaztea

Aitor Fraga (Hernani, 2003ko martxoaren 9a) Espainiako futbolaren izen itxaropentsuenetako bat da.

Reala B taldeko eta 21 urtez azpiko Espainiako selekzioa atezaina izanik, goraka doan talentua baino askoz gehiago dela erakutsi du Fragak, bere taldearen atean zutabeetako bat eta bere belaualdian erreferente gisa sendotuz.

Hernani K.E.tik pasatuz bere hastapenetan, Realeko beheko mailetan hasi zen, arkulari gaztea makilen azpiko segurtasunagatik, lidergorako gaitasunagatik eta erreflexuetarako abilezia ikaragarriagatik nabarmendu zen. Bere progresio meteorikoak Sansekin debuta egitera eraman zuen, adin goiztiarrean, 2023an, bere jokoarekin arrastoa utziz eta 21 urtez azpiko hautatzailearen arreta erakarrit.

Altuera ikaragarriarekin eta lasaitasun inbidiagarriarekin,

Aitorrek askotan erakutsi du bere epeltasuna partida garrantzitsuetan. Aurrea hartzeko duen abilezia, despejeetan duen zehaztasuna eta konfiantza handia direla eta, entrenatzaile zein zaleen laudorioak jaso ditu.

2024a urte garrantzitsua izaten ari da bere ibilbidean, Real B-n titular gisa sendotuz eta 21 urtez azpiko selekzioak erregularki deituz. 21 urtez azpiko Europako sailkapen-txapelketan parte hartzeak nazioarteko esperientzia indartu ez ezik, Espai-

niako futboleko etorkizun handiko jokalaria ere bihurtu zuen.

Zelaitik kanpo, Aitor Fraga ezaguna da bere umiltasun eta dedikazioagatik. Kirolzalea da, oro har, eta sasoian egoten eta helburuak lortzen laguntzen dioten jardueretan ematen du denbora libre. Begiak Realeko lehen taldean eta maila absolutuan jarrita, etorkizunak distiratsua dirudi Hernanin historia markatzen ari den gazte hernanitarrazat.

